

Prentsaurreko honen bitartez USTELKERIA KASU BERRI BAT salatu nahi dugu. Errejimena sostengatu zutenak noraino iristeko prest dauden agerian uzten duen ustelkeria kasua.

Haien etengabeko presioek eta jarritako helegiteek ez gintuzten isilarazi. Lanean jarraitu dugu Nafarroan, gardentasunaren eta aldaketaren alde, ustelkeriaren kontra. Eta orain zitalkeriaz jokatu dute guri maila pertsonalean min egiteko.

1. Mendekuz jo dute Kontuz-eko bozeramale ezagunenaren kontra. PZ bere lanetik kanporatuarazi dute. PZ 31 urtez hegaldi laguntzaile izan da. Oposizio batzuk gaindituz lortu zuen bere lanpostua. Baina orain Guardia Zibilak abioietara sartu ahal izateko baimena kendu dio "ez gai" dela esanaz. INONGO AZALPEN EDO ARRAZOIRIK EMAN GABE. Enpresak bidegabetzat jo du gertatutakoa baina PZ kanporatu egin du.
Gainera, nabarmendu behar dugu PZ-k ASTEBETE LEHENAGO BERRITU ZUELA ETA 31 URTEZ ERABILI DUELA abioietan sartzeko txartel hori. Hain justu aurreko azaroan eman zioten Estatu Batuetan sartzeko bisa 2027. urterarte!!! Aldiz, guardia zibilak "ez gai" jo du, bestelako argudiorik gabe. Ez gai.
2. Nork sustatu du Guardia Zibileko arduradun baten erabaki hori? Ez dakigu, oraingoz!! Baina ongi dakizuenez, Kontuz-ek oso pertsona garrantzitsuak biluztu ditu, bai Nafarroakoak zein estatuan boterearen inguruan dabiltzanak ere. Eta hariak nork mugitu dituen argituko dugu.
3. Honakoa adierazi nahi dugu deialdi honetan:

Gertakari hauek gogor salatu nahi ditugu, USTELKERIA KASU baten aurrean baigaude. GUARDIA ZIBILA, alegia, zerbitzu publiko bat ERABILI delako BABESIK GABEKO zenbait herritarri kalte egiteko.

Nafarroako herritarrei berretsi nahi diegu Kontuz-ek IKERTZEN, SALATZEN, eta BILKURAK EGITEN jarraituko duela. Orain inoiz baino gehiago!! (Izan ere, lanean burubelarri jarraitu baitugu, eta ez dugu baztertzen aurki zenbait auzitan esku hartzea).

Gizarteari dei egiten diogu IRITZI ETA ADIERAZPEN ESKUBIDEA DEFENDATZEKO, ETA USTELKERIA KASUAK SALATZEKO.

Patxi gure kidea BABESTU nahi dugu. Ze babesten ez badugu, nor izanen da hurrengo kaltetua? Hemendik aurrera nor ausartuko da ustelkeria salatzen?

Zitalkeria honen atzean dagoena ezagutarazi nahi dugu, eta erantzunkizunak eskatu. Erran dugun bezala, kontu hau ikertzen ari gara eta honen erantzuleak aurkituko ditugu.

Azkeneko gogoeta bat: kezkarriena da, mendeku hau martxan jartzerako, hainbat jende berriz ere indartsu sentitzen ari dela. Ez genien utzi Nafarroako Kutxako ustelkeriarekin aurrera egiten, eta orain ere ez dira garaile irtengo. Lehen bezala orain ere justizia eta gardentasuna exijitzen jarraituko dugu.

EZ NAU ENPRESAK KANPORATU, GUARDIA ZIBILEKO NAGUSI BATEK KALERATU NAU. Noski, atzetik norbaitek xaxatuta. Nire lanpostuan sartzeko "Ez gai" naizela diote, suposatzen denez segurtasun kontuengatik. Haiena bai gaitasunik eza orduan! 31 urtez lanpostu berean, gai , eta orain bapatean, ez gai.

Erabaki honetan zer esana izan dezaketen erakundeek haluzinatuta esaten zidaten beraien ez zutela horretan zerikusirik... Guardia Zibila izan dela arduraduna.

Enpresak berak ezin zuen sinetsi eta gestio pertsonal bat egin zuten, "buruzagien" artekoa. Baina horrela erantzun zien guardia zibilak: PZ-K ez du bere bizitza osoan hemen berriz ere lanik egiten. Azaroaren 22-an txartela kendu zidatenetik nire esku egon diren urrats administratibo guztiak egin ditut egoera konpontzen saiatzeko, eta ez dira gutxi izan: Guardia Zibila, Aireportuko segurtasuna, Barne Ministerioa... eta "ez gai" naizela esan ondoren ez didate beste erantzunik eman. NIRE ERREKERIMENDUEI "0" erantzun.

Eta lanetik BOTA naute.

INONGO ARGUDIO EDO AZALPENIK EMAN GABE!!

31 URTETAN INONGO ARAZORIK IZAN GABE!!

ETA ZERGATIK? BA NAFARROAKO KUTXAN GERTATUTAKOA SALATZEAGATIK ETA HAUTESKUNDEETAN ALDAKETA IZENENKO HAUTAGAITZAN AURKEZTEAGATIK.

- Ba gaur iragarri nahi dut, lan arloan borroka juridikoari ekiteaz gain, dagoeneko BARNE MINISTERIOAREN KONTRAKO SALAKETA JARRI DUGULA OINARRIZKO ESKUBIDEAK URRATZEAGATIK. GURE IRITZIZ GERTATUTAKOA JAZARPEN IDEOLOJIKO ARGIA DELAKO, arbitrariotasun osoz, inongo azalpenik eman ez dutelako, neure burua erabateko indefentsio egoeran utzita, babesik gabe.
- Azaldu dizkizuegun EKIMEN JURIDIKOez gain, bestelako EKIMENAK prestatzen ari gara ERAKUNDE EZBERDINETAN, eta ez dugu baztertzeko bestelako elkarretaratze edo mobilizazioak egitea.
- Bestetik, denbora asko daramagu informazioa biltzen, "Banquete" berri bat prestatzen Nafarroako errejimenerako oinarriari buruzkoa. Zitalkeria honek lanean jarraitzeko grina berpiztu digu, kasu honetan "bunker forala"-ri buruzko ikerketa kazetaritza liburu berri bat lantzen ari gara, haien mendeku eta azpikeriei buruzkoa. Eta hau guztia martxan jarriko dugu ustelkeria honen kontrako elkartasuna eta babesa bilatuz, baina batez ere zerbitzu publikoen zilegizko erabilera garden baten alde eta ustelkeria ororen kontra.

1. Alderdi politiko guztiei eskatzen diegu, salbuespenik gabe, gehiegikeria eta jauntxokeria honen kontra agertzeko: UPN/PP/PSN/Ciudadanos-i, eta baita aldetaren gobernuia sostengatzen duten alderdiei: Geroa Bai, IE, Podemos eta EH Bilduri.
2. Kazetariei, Kontuz-en egin dugun lana babes dezaten, batez ere kazetari lana izan baita (El Banquete ikerketa kazetaritza lana delako eraso hauen jomugatako bat); manifestu bat idatziko dugu, kazetarien babesa jasotzeko, oraingoz.
3. Sindikatu guztiei, arrazoi ideolojikoengatik langile bat kaleratu duten auzi honi buruzko jarrera ager dezatela. Baita enpresarioei ere, enplegu sortzaile diren neurrian adibide honek kalte egiten dielako.
4. Gizarte mugimenduei, sareetako iritzi sortzaileei eta gizarteari gehiegikeria honen berri zabal dezatela eta mugi daitezela eskatzen diegu.